

PRODUKTUAREN DESKRIBAPENA

Produktu hau gizakiaren osasuna eta gure ingurunea hobetzeko egin dugu, gaur egungo ingurunea nahiko gaizki dagoelako.

Teknologia adimentsuz hornitutako erosketa-poltsa berrerabilgarria da, poltsa telazkoa izango da eta kontsumitzaileei erosketak egitean erabaki iraunkorrakoak eta ekonomikoagoak hartzen laguntzeko.

PRODUKTUAREN EZAUGARRIAK

Etiketa-irakurgailua: Poltsak etiketa-irakurgailu bat du, produktuak poltsan jarri ahala eskaneatzen dituena. Teknologia horrek produktuen prezioari, jatorriari eta iraunkortasunari buruzko informazioa ematen du denbora errealean.

Aplikazio mugikorrerako konexioa: Poltsa aplikazio mugikor batera konektatzen da. Horri esker, erabiltzaileek beren erosketen jarraipena egin dezakete, produktu jasagarrien gomendioak jaso ditzakete eta hurbileko dendetan eskuragarri dauden eskaintzei eta deskontuei buruzko informazioa lor dezakete.

Ingurumen-aztarnaren adierazlea: poltsak LED adierazle bat izan dezake, erositako produktuen ingurumen-aztarnaren arabera kolorez aldatzen dena. Adibidez, berdea produktu ekologikoetarako, horia neurri batean iraunkorrak diren aukeretarako, eta gorria hain iraunkorrak ez diren produktuetarako.

Sari-puntuak: Erabiltzaileek sari-puntuak bildu ditzakete produktu iraunkorrakoak aukeratzean. Puntu horiek etorkizuneko erosketetako deskontuengatik trukatu ahal izango lirateke, edo baita ongintzako erakundeei eman ere. Hau egitean, kontsumitzaileak motibatu egiten dira poltsa gehiago erabiltzera eta erosketa osasuntsu bat egitera animatzen dira.